



USE YOUR POWER TO CHANGE CLIMATE CHANGE

60+
EARTH
HOUR



'Ordubeteko itzalaldi simple bat ingurugiroaren alde munduan egiten den ekintzarik garrantzitsuena' bilakatu da. Horixe da 'Earth Hour', World Wide Fund for Nature (WWF) erakundearen arabera. Banakoen ekimenek klima aldaketaren kontrako borrokan lagun zezaketelakoan, 2007an aurreneko ospatu zuten 'Planetaren ordua', Sidneyn (Australia). Apurka-apurka, urtez urte, ekimenarekin bat egiten joan dira mundu osoko hiriak.

10 urte geroago, urteroko zita bihurtu da. Aurten ere (bihar bertan) nazioarteko erakundeek, enpresek eta herritarrek argiak itzaliko dituzte 20:30etik 21:30era Lurraren berotzeaz ohartarazteko eta "gizateriarentzat etorkizun distiratsuago" bat aldarrikatzeko.

"Lurra lehendabizi. Ez zaitzala inork geldiarazi" da aurtengo hitzorduaren leloa. WWF Espainiak gogorarazi duenez, 2016a azken 136 urteetako beroena izan zen, eta XXI. mendean, ia urtero gainditu dira tenperatura hazkundearen markak.

Munduan kutsatzen den uraren %80 ez da tratatzen

Munduan 660 milioi pertsonak ezin dute edateko urik lortu, eta beste 1.800 milioi erabiltzen duten ura zikina edo kutsatuta dago. Egoera horren ondorioz, gaitzak mugagabe zabaltzen dira ur eskasia duten lekuetan, egunero mila haur hiltzen dira ur faltak eragindako gaitzen ondorioz.


Uraren Nazioarteko Egunaren harira, Jon Ander Areses Medicus Mundiren Garapenaren aldeko Hezkuntza teknikariak adierazi du munduan kutsatzen dugun uraren %80a ez dela tratatzen. Hau dela eta, kontsumitzaileei arduraz jokatzeko deia egin die.



Itxi kanila! Bederatzi metroko plater zikinak agertu ziren asteartean Bilboko itsasadarrean, Euskalduna Jauregiaren aurrean. Eskultura bat da, eta ura zentzuz erabili behar dela aldarrikatzea du helburu.

Batez beste, familiek 1.000 litro hondakin-ur sortzen ditu egunean Espainian, eta ur horiek makina araztaileek garbitu behar dituzte, energia ugari kontsumituta.

Hyperloopen lehen kapsula dagoeneko egiten ari dira



Hyperloop Transportation Technologies (HTT) eta Carbuces konpainiak etorkizuneko garraiobidearen lehen bidaiari-kapsula egiten hasi dira, eta 2018ko hasieran entregatuko dute.

Kapsula 30 metro luze izango da, eta 2,7 metro zabal. 20 tonakoa izango da, eta 28-30 pertsonarentzako lekua izango du. 1.223 km/k-ko abiadura joango da.

Hyperloopek Abu Dhabi eta Dubairen arteko konexioa egin nahi du, 160 kilometro 12 minututan egiteko.

Motor hotzak hasi dira



Automobilismoaren zale amorratuak pozik egon daitezke, denboraldi berria asteburuan hasiko da eta. Australiak irekiko du aurten ere denboraldia, eta 20 lasterketa burutuko dira, azkena azaroan.

Munduko txapeldunak bereganatu ohi du beti 1 Formulako denboraldia hastear delarik gehien. Nico Rosberg, ordea, autoetatik urrun izango da asteburu honetan Australian, ikusle bat gehiago izango baita, erretiroa hartu ondoren. Haren tokia Valtteri Bottasek hartu du; bere bizitzako aukera du finlandiarrak. Lewis Hamilton izango du bere alboan, titulua berreskuratzeko goseak jota. Baina azken hiru urteetan Mercedesen motorra irabazteko bermea bazen, alemaniarrak ez dira lasai atera neguko probetatik. Ferrari izan da neguko txapeldun-a, isil-isilik.

Bi gurplekoak ere martxan daude. Qatarko Sari Nagusiarekin hasiko da igandean, Losail zirkuituan, 2017ko Munduko Motoziklismo Txapelketa, eta entrenamenduak hasi dira dagoeneko. Hemezortzi sari nagusi jokatuko dira denera, eta azaroan, Valentzian astinduko dute azken aldiz laukidun bandera.

Bilboko Portuak bere historiako kontainer-ontzi handiena hartu du

Bilboko Portuak Cezzane kontainer-ontzia hartu du aste honetan. Bertako kaietan porturatu den ontzi mota honetako handiena.

Ontziak 300 metroko luzera (ia 3 futbol-zelai) eta 48 metroko zabalera (19 kontainerren zabalera), eta 9.971 TEUs-ko (kontainer baten baliokide den nazioarteko neurria) karga maximoko edukiera du.

Anberesko (Belgika) portutik heldu da Bilbora, Brasileran eraman behar dituen kontainerrak kargatu eta Algecirasen egingo du geldialdia.



Galdakaoko Ospitaleak Euskadiko lehen esne bankua irekiko du aurten



Euskadin, lehen esne bankua sortuko dute Galdakaoko Ospitalean, seguruenik azken hiruhilabetekoan.

Aurrekontua 70.000 eurokoa izan da, eta 32 asteren buruan jaiotako haurrei zein 1.500 gramo inguru pisatzen duten jaioberriei emango die zerbitzu. Halaber, umei esnerik eman ezin dieten amei laguntzeko balio izango du esne banku horrek.

Esne-emaelek etxean izoztu ahal izango dute esnea, eta hamabostean behin gertuko erietxera eraman. Handik Galdakaoko bankura eramango dute, norbaitek horren beharra izan arte.

EGURALDIA: ORDU ALDAKETAREKIN DATOR ALDAKETA

Erlojuak ordubete aurreratu beharko dira igande goizaldean, 02:00etan 03:00ak izango dira. Europako Batasuneko herrialde guztietan aldatuko dute ordua. Eguraldiak ere aldatuko du. **Larunbatean**, giro goibela eta euritsua espero da. Hodeiek zerua estaliko dute eta euria ia etengabe egingo du. **Igandean**, berriz, atertu eta argitzera egingo du.

